



**ETXEBIZITZEN SALMENTA HEGOALDEAN**

Salmenta



Prezioaren indizea

2015=100



ITURRIA: INE

\*2019ko hirugarren hiruhilekoa

# Etxebizitzen salerosketa %4,8 txikitu da Hegoaldean

Lehen aldia da 2013az geroztik merkatuak atzera egin duela • Prezioek goranzko bidean jarraitzen dute: %4,8, azken datuen arabera

**Iker Aranburu**

Amaitu egin da bost urteko hazkunde epea. Lehen aldiz 2013. urteraz geroztik, etxebizitzaren salmenta jaitsi egin zen iaz Hego Euskal Herrian. INEren datuen arabera, 25.080 etxebizitza salerosi ziren 2019. urtean, aurrekoan baino 1.272 gutxiago (-%4,8). Urteak aurrera egin ahala, merkatuak indarra galdu du, urte erdian jaitsiera oso txikia baitzen, %0,2 baizik ez.

Hamar urteren ondoren, 2018an iritsi zen merkatua krisia sortu zeneko mailara. Badago, ordea, desberdintasun handi bat 2008ko eta 2019ko etxebizitza merkatuen artean: orduan, saldutako bi etxetik bat (%47,8) berria zen, eta garabiak oraindik bete-betean ari ziren lanean, krisiaren aurretik martxan jarritako proiektuak bukatzen. Inertzia horrek 2012ra arte iraun zuen, baina orduetik aurrera asko txikitu zen etxebizitza berrien emaria. Azken urteetan, bostetik bat baizik ez da berria izan: iaz, zehazki, %19,8 izan dira. Horien salmenta %4,4 jaitsi zen iaz.

**Krisia hasi aurretik, saldutako bi etxetik bat zen berria, baina orain bostetik bat baizik ez da; iaz, zehazki, %19,7 izan ziren**

**Etxebizitzaren merkatua asko jaitsi da Nafarroan (-%9,7) eta Bizkaian (-%7,7), baina gora egin du Araban eta Gipuzkoan**

Hainbat arrazoik azal dezakete salerosketen jaitsiera. Batetik, krisiak geratutako operazioak egin dira jada –2007tik 2013ra ia bi heren urritu ziren salerosketak, eta orduan galdutakoaren %60 inguru berreskuratu dira dagoeneko—. Arrazoi ekonomikoak ere badaude: prekaritatea eta soldata kaskarrak asko zabaldu dira, batez ere gazteen artean, eta ho-

rrek erosle posibleak gutxitu ditu. Faktore demografikoak ere badaude: biztanleriaren zahartzeari gehitu behar zaio bizitokia behar dutenen zati handi bat etorkinak izatea. Azken horietako gehienek alokairura jo ohi dute, aurrezki handirik ez dutelako etxea erosi ahal izateko, eta zailtasun handiagoak dituztelako maileguak eskuratzeko.

INEk beste datu bat ere eman du, erakusten duena erakunde publikoen esku hartzea alokairura bideratzen ari dela: babes ofizialeko 2.553 etxebizitza saldu zituzten, merkatu osoaren %10,2 baizik ez. 2008an, merkatuaren %18 ziren, erakunde publikoek etxebizitza babestuak saltzen baitzituzten.

Lurraldei erreparatu, jaitsiera handiak izan dira Nafarroan (-%9,7) eta Bizkaian (-%7,7). Gora egin dute, berriz, Araban eta Gipuzkoan (%1,3 bietan).

**Prezioek, gora**

Salmenten jaitsiera oraindik ez da askorik antzeman prezioetan. INEK hilabete barru emango ditu 2019 amaierako datuak, baina urteko hirugarren hiruhilekoan ikusten da eskerra jaisteak eragin mugatua izan duela prezioetan. Horrela, urtebetean %4,8 garestitu dira etxebizitzak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta %3,1, berriz, Nafarroan.

Edonola ere, salneurriak oraindik oso urrun daude krisi aurreko kopuruetatik. INEK dio batez beste %26 merkeago daudela Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta %38 merkeago Nafarroan. Alde handiak daude herri batetik bestera eta hirietako auzo batetik bestera; batzuetan jada gaintu dituzte duela hamar urteko prezioak, eta besteetan horrelakorik ez da espero beste hainbat urtez.

